



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko urriaren 2a

83. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako kontratu publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 51. artikulua aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuo kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, agur zibilak arautzen dituen. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (4. or.).
- Foru Lege proposamena, haur hezkuntzako lehen ziklorako neurriei buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (4. or.).

D SAILA:

Hitzarmenak:

- Ingurumen Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzaren hitzarmena, Nafarroako Ubidea egiteko. Osoko Bilkurak emandako baimena (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Osasunbideko langile fakultatiboek sustatu eta bultza dezaten preskripzioak printzipio aktiboei jarraikiz egitea, sendagai generikoen erabilera handitze aldera. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da gazteen sexualitatearen arloko osasunlaguntzako plana presta dezan. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da bete dezan urtarrilaren 28ko 4/2004 Foru Aginduan ezarritakoa eta abian jar dezan Nafarroan bularra ematea sustatzeko batzorde aholku-emaile teknikoa. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da berma dezan hizkuntza eskola ofizialek hizkuntzak hobetzeko ikastaro espezializatuak, maila desberdinetan, antolatu, eman eta ziurtatu ahal iza-

tea, abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Liburutegiei buruzko Foru Legea gara dezan. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Barne Ministerioa premiatzen da ken ditzan iragan martxoaren 8an Iruñean gizonen eta emakumeen berdintasunaren aldeko elkarretaratzea egiten saiatu ziren eta Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzak salatu zituen pertsonen jarritako salaketak eta administrazio-zehapenak. Osoko Bilkurak bazter utzia (9. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko bi izangai izendatzea (10. or.).

—Nafarroako Parlamentuaren ordezkari diren Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kideak izendatzea (10. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako kontratu publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 51. artikulua aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2008ko irailaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako kontratu publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 51. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu zuen eta 2008ko uztailaren

4ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2008ko irailaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena.

Proposamen hori 2008ko maiatzaren 30eko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, agur zibilak arautzen dituen.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2008ko irailaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako agur zibilak arautzen dituen Foru Lege proposamena.

Proposamen hori 2008ko maiatzaren 30eko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, haur hezkuntzako lehen ziklorako neurriei buruzkoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2008ko irailaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztutako haur hezkuntzako lehen ziklorako neurriei buruzko Foru Lege proposamena.

Proposamen hori 2008ko ekainaren 13ko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

D saila:
HITZARMENAK

Ingurumen Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzaren hitzarmena, Nafarroako Ubidea egitekoa.

OSOKO BILKURAK EMANDAKO BAIMENA

Nafarroako Parlamentuak, 2008ko irailaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Foru Diputazioari ondoko hitzarmena izenpetzeko eskatutako baimena ematea erabaki zuen: "Ingurumen Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzaren hitzarmena, Nafarroako Ubidea

egitekoa." Haren testua 2008ko irailaren 11ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasunbideko langile fakultatiboek sustatu eta bultza dezaten preskripzioak printzipio aktiboei jarraikiz egitea, sendagai generikoen erabilera handitze aldera.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko irailaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasunbideko langile fakultatiboek sustatu eta bultza dezaten preskripzioak printzipio aktiboei jarraikiz egitea, sendagai generikoen erabilera handitze aldera?"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasunbideko langile fakultatiboek sustatu eta bultza dezaten preskripzioak printzipio aktiboei jarraikiz egitea, sendagai generikoen erabilera handitze aldera

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Osasunbideko langile fakultatiboek, osasun laguntza espezializatuan zein oinarritzko osasun laguntzan, susta eta bultza dezaten preskripzioak printzipio aktiboei jarraikiz egitea, medikamentu generikoen erabilera areagotuz hartara.

2. Osasunbideko sendagileei medikamentu generikoen alorreko informazioa eta prestakuntza emateko ekintzak gara ditzan: kalitate eta biobalio-kidetasun bermeak, arau-esparrua, betekizun tekniko eta zientifikoak, eskuragarri dauden generiko motak eta abar, sendagileek produktu horiek hobeki ezagut ditzaten.

3. Medikamentu generikoen baliagarritasunari buruzko hezkuntza eta informazio kanpainak egin ditzan, herritarrei zuzenduak, Osasunbideari dakarkioten onura ekonomikoa nabarmenduz generikoek osasunerako ematen dituzten berme ez aritzean.

4. Osasun Departamentuak Nafarroako Parlamentuan urtero informa dezan sendagai generikoen erabilera haztearen ondorioz farmazia gastuan izandako aurrezkiari buruz, eta aurrezki hori osasun arloan, ikerketa publikoaren arloan, profesionalen prestakuntzan eta osasun publikoaren arloan inberti dezan.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gazteen sexualitatearen arloko osasun-laguntzako plana presta dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko irailaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da gazteen sexualitatearen arloko osasun-laguntzako plana presta dezan?"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gazteen sexualitatearen arloko osasun-laguntzako plana presta dezan

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gazteen sexualitateari buruzko osasun arloko laguntza-plana presta dezan.

2. Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio beharrezkoa den prozedura has dezan, "Gazteen kontsultetarako erreferentzia-zentroa" sortze aldera, eta gazteek informazioa eta aholkua jasotzeko tresnak bultza ditzan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du nerabeek eta gazteek preserbatiboak doan eskuratzeko modua hobe dezan, arreta berezia jarriz gizarte-arrisku handiko egoeran dauden gazteen sexu arloko osasun-beharrizanei.

Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da bete dezan urtarrilaren 28ko 4/2004 Foru Aginduan ezarritakoa eta abian jar dezan Nafarroan bularra ematea sustatzeko batzorde aholku-emaile teknikoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko irailaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Osasun Departamentua premiatzen da bete dezan urtarrilaren 28ko 4/2004 Foru Aginduan ezarritakoa eta abian jar dezan Nafarroan bularra ematea sustatzeko batzorde aholku-emaile teknikoa?"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da bete dezan urtarrilaren 28ko 4/2004 Foru Aginduan ezarritakoa eta abian jar dezan Nafarroan bularra ematea sustatzeko batzorde aholku-emaile teknikoa

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bete dezan urtarrilaren 28ko 4/2004 Foru Aginduan ezarritakoa eta abian jar dezan berriz ere bularra ematea sustatzeko batzorde aholku-emaile teknikoa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Parlamentuari urtero informa diezaion batzorde horrek eginiko lanari eta ateratako ondorioei buruz.

Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da berma dezan hizkuntza eskola ofizialek hizkuntzak hobetzeko ikastaro espezializatuak, maila desberdinetan, antolatu, eman eta ziurtatu ahal izatea, abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko irailaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Hezkuntza Departamentua premiatzen da berma dezan hizkuntza eskola ofizialek hizkuntzak hobetzeko ikastaro espezializatuak, maila desberdinetan, antolatu, eman eta ziurtatu ahal izatea, abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da berma dezan hizkuntza eskola ofizialek hizkuntzak hobetzeko ikastaro espezializatuak, maila desberdinetan, antolatu, eman eta ziurtatu ahal izatea, abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz

1. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du berma dezan hizkuntza eskola ofizialek hizkuntzak hobetzeko ikastaro espezializatuak antolatu, eman eta egiaztatu ahal izatea, hala maila oinarrizkoan, ertainean eta aurreratuan nola Europako Erreferentzia-esparru Komuneko C1 eta C2 mailetan, abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz.

2. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du ziurtapen ofizialak eman ditzan, Hezkuntza Idazkaritzak Arartekoaren Bulegoari adierazitakoaren ildotik, ikasleek Nafarroako hizkuntza eskoletan ematen diren C mailetakoa ikastaroetan lortzen dituzten gaitasunei buruz. Halaber, premiatzen du Hezkuntza, Gizarte Politika eta Kirol Ministerioak Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C mailak zabaldu eta haietan sakontze aldera proposatzen dituen neurriak luzamendurik gabe ezar ditzan Nafarroako hizkuntza eskola ofizialetan.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Liburutegi- ei buruzko Foru Legea gara dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko irailaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Liburutegiei buruzko Foru Legea gara dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Liburutegi- ei buruzko Foru Legea gara dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ondokoak egin ditzan:

1. Nafarroako liburutegi sistema arautzen duen azaroaren 19ko 32/2002 Foru Legeko 3.a artikuluan aurreikusitako irakurketa publikoaren mapa Legebiltzarrean aurkez dezan, haren berri izan eta eztabaidatzeko.

2. Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren zerbitzu-zorroa, foru legeko 3.b artikuluan aurreikusia, gara dezan.

3. Liburutegi zerbitzuen plan estrategikoa, foru legeko 3.h artikuluan aurreikusia, aurkez dezan, liburutegi zerbitzuaren jardueretan eta hura ematean segitu beharreko jarraibideak garatzeko; epe motz eta luzerako helburuak zehatz ditzan eta horiek erdiesteko behar diren baliabideak planifika ditzan, irakurketa publikoaren maparen eta kudeaketako gainontzeko tresnen barruan.

4. Ezartzea 2009ko otsailaren 1a izanen dela azken eguna foru legeko 3. artikuluan aurreikusitakoak –irakurketa publikoaren mapa, zerbitzu-zorroa eta plan estrategikoa– Nafarroako Parlamentura igortzeko.

Mozioa. Horren bidez, Barne Ministerioa premiatzen da ken ditzan iragan martxoaren 8an Iruñean gizonen eta emakumeen berdintasunaren aldeko elkarretaratzea egiten saiatu ziren eta Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzak salatu zituen pertsonen jarritako salaketak eta administrazio-zehapenak.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Barne Ministerioa premiatzen da ken ditzan iragan martxoaren 8an Iruñean gizonen eta emakumeen berdintasunaren aldeko elkarretaratzea egiten saiatu ziren eta Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzak salatu zituen pertsonen jarritako salaketak eta administrazio-zehapenak".

Legebiltzarrak 2008ko irailaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2008ko maiatzaren 23ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko bi izangai izendatzea.

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko irailaren 25ean egindako bileran, erabaki hau onetsi zuen:

“Konstituzio Auzitegiari buruzko Lege Organikoaren 16.1 artikuluan, Senatuko Erregelamenduko 184.7 artikuluan eta Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko bi hautagai hautatzeko arauetan –2007ko abenduaren 10eko Mahaiko erabakiaren bidez onetsiak– xedatutakoa betez, hona ERABAKIA:

Nafarroako Parlamentuak Senatuari Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko aurkeztu behar dizkion bi hautagai gisa José Francisco Cobo Saenz jauna eta Manuel Pulido Quecedo jauna izendatzea.”

Iruñean, 2008ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Parlamentuaren ordezkari diren Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kideak izendatzea.

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko irailaren 26an egindako bileran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren ordezkari diren Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kide izateko hurrengo pertsona hauek izendatzea:

- Ángel Ustarroz Larriba jauna
- Bixente Serrano Izko jauna

- Jesús Iurre Arigita jauna
- Luis Campoy Zueco jauna
- Miguel Ángel Larrayoz Lezáun jauna

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikulua ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2008ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 47,00 euro Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 » Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	